



ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 9

Suplemento a la Hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Marzo 1954

KRISTO TA ELEIZEA

Lengo egunean, San Jose bezperan, Bilboko trenean aldarrika berba egiten joan ei zan gizon bat, urrengo eguneko bigilia dala ta ez dala. Garizimako barikuetan aragixtea, Jesukristok berak agindu ebala. Obispoak, Jainkoaren aginduen kontra joateko eskubiderik ez daukela. Komunio aurreko barua kentzea naikoa ez baillitzan, orain aragixteak-be kentzen asi direala. Obispo Jaunaren baimena gorabeera, San Jose egunez berak bigilia egingo ebala. Eta abar eta abar.

Nik ez dakit zegaitik, baiña auxe da egia: Zoritxarrez, gaur eguneko kristiñauak ez deutse Eleizeari bear dan besteko lotsarik gordetan. Italian komunismoa txarra dala ta ez dala, Frantzia abade langilleak ondo egin dabela ta ez dabela, Euskalerrian eleizako eskabideak larregi direala ta ez direala, oraingo kristiñau askok ez deutse Eleizako Agintarieri jaramon aundirik egiten.

Euren ustez, egon leiteke Kristotoren alde, Eleizearen agindueri kontra egiñarren-bere. Euren eritxiz, Kristoren buztarria ariña da; Eleizearena, barriz, astuna. Obispoak oker egon leitekez. Eta guk ez daukogu euren esanetara zetan egon bearrik. Alantxe pentsau ta alantxe berba egiten dabe katoliko askok.

Ain zuzen-be, kristiñau erlegiñoan, noizik noizera izan direan okerbide guztiak ortixek izan dabe etorburua. Eta kristiñau fedea ausi daben hereje guztiak, Eleizako Agin-

tarieri mukerrak erakusten asi zirean beti.

Arean-bere, aztu egin eben ebanjelioan Jesukristok apostolueri eta euren ondokoeri esan eutsena: «Zueri entzuten deutsueenak, niri neuri entzuten deuste. Eta zueri jarkiten jatzuezanak, niri neuri gogor egiten deuste. Gaurtik aurrera, Atxa (Pedro) izango da zure izena; eta Atx onen gaiñean eregiko dot nire Eleizea, eta areriroak ez jakoz sekula nagusituko. Lurrean askatuten dozuen guztia, zerruan-bere askatua izango da; eta emen lotuten dozuena, an goian-bere lotua izango da.»

Beiñolako herejeak, zatitu egin eben Kristoren Emaztearen — Eleizearen — jantzi ederra. Gaurko kristiñau mukerrak, ostera, ausi egin dabe Bere Ordezkoaren — Pio XII'garrenaren — biotza. Aspaldion makalik egon da Aita Santua. Zarra da izan-bere. Baiña urteakaitik baiño geiago, nunbaiteko kristiñauen bizi-modu tematiagaitik gaixotu da.

Ez gaitzean izan gu olako kristiñauak. Abegi onez artu daiguzan euskaldunok Aita Santu ta Obispo Jaunen erabagiak. Okerrak direala uste izanarren. Gure biotza odola dariola geratuarren. Illunaldietan, ezer esan edo egin aurretik, aitortu daigun gure jakineza, eta joan gaitzean gauzak ondo erakutsi leikiguzan battegana. Ez jaramon sasimaixueri. Eutsi sendo fedeari. Euskaldun, fededun. Eleizea dagoan lekuan, antxe Kristo.



Abade langilleak direala ta ez direala, zerbait entzun dot aspaldion. Jakin gura neuke nortzuk direan eta bearbada zeredozer jazo ete jaken.

Abade langilleak, orain amar urte-edo agertu zirean Frantzian. Izen ori, fabriketara bear egitera joaten zirealako emon eutseen. Antxe lan egiten eben egun guztian, zortzi orduko jardun gogorrean, osterantzeko beargiñakaz batera. Abade langilleak baiño obeto, sazerdote langilleak deitu bear geunskioe, euren artean fraillak-be ba-egozan-da. Frantzi osoan, eun inguru izango zirean guztitara: larogei abade ta ogei fraille. Lantegietara euretara joatea erabagi eben, zelan edo alan beargiñen arimak salbetako. Danok dakizue Frantziko langille geienak erlegiñoa galdu dabena. Ardi galduak Kristoren artegira atzera ekarteko, ez egoan antza beste biderik: eurakana joan, eurekin batera lan egin, euren premiñak urre urretik ezagutu, euren bizimodua erroan. Alan, beargiñak errezagoo onbideratuko ei zirean, eleizgizonen ikaragarritzko ejenplu ona ikusirik.

Baiña zoritxarrez, gauzak ez dabe urten orrelan. Eleizgizonak larregi amor emon, langilleakaz geiegi itundu, komunisten alkartasunetan sartu, mezea lantzean bein bakarrik esan, Obispoen agindueri jarkiten asi, ta geldiro geldiro abade antza-be galdu egin eben.

Ori dala-ta, Aita Santuak, gauzak ondo ezagututa gero, ez deusta ondo eritxi abade langilleen bizimodu orreri; ta igaro dan urtarrillean, Frantziko Obispoen bitartez zera agindu deutse, oraiñarteko bidea itxita, beste bat ainbat arifien artu daiela. Adu txarrez, batzuk Aita Santuaren aginduen kontra jarri dira.

Erregutu daigun euren alde, lenbailen bide onera biurtu daitezcan.

NESKA - MUTILLAK ETA ZARRA

(Manu, Maritxu ta Txomin)

Man. Nora zoiiaz, Maritxu, Ain arro jantzita?

Mar. Ziñera noia, Manu, Ederra ei dago-ta.

Man. Baiña sasoi orretan, Ia gaba da-ta?

Mar. Gaba izanagaitik Konponduten gara.

Man. Gurean ez daukogu Ortako baimenik, Eta gaiñera gabaz Eskatzea alperrik.

Mar. Nori ardura deusta Gaba izanagaitik? Orain ez dago, Manu, Atzoko konturik.

Man. Gabeko ibillerak Itxizuz, Maritxu, Eta egun argitan Garbiro jolastu. Gabaz dabiltzazanak Goiz edo berandu Alperrik galtzen dira Eta neskazartu.

Mar. Zer diraustazu, Manu? Zoratu al zara? Egunez ez jatortzu Gaur iñor ondora. Eta egunez bakarrik Ibilten bagara, Orduan bai neskazar Geratuko gara.

Man. Egun argitan dira Ardiak ezautzen, Gabaz danak bardiñak Jakuz iduritzen. Gabeko tratuetan Bazara ibilten, Ez dozu izango errez Tratu ona egiten.

Txo. Maritxu, nai badozu Zeure zoriona, Entzun egizu Manuk Esaten deustuna. Gura badozu artu Egizko laguna, Ez aukeratu, Mari, Gabaz jatortzuna.

Balentin Enbeita

Illeko ipuiña

IRU EGIA

Kortezubi aldeko basoetan bizi zan-azeri zar batek, oillar kukurruku zoliak entzuten ebazan Foru aldean.

Gau baten baiño geiagotan abiau zan animala maltzurra egazti areeri atomadea egitekoatan, baiña bere maltzurkeri guztiekin ibai ertzean geldituten zan beti, beste aldera igaro ezinik. Naitanaiez, ibaia igaro bear ba, oillarrak atrapau al izateko.

Alako baten, asmau eban asmetakoa azeri zarrak.

Uraren beste aldera eroaten baeban, iru egia jakingarri esango eutsazala esan eutsan, arrats epel baten, ibai ertzean bakez bizi zan-gizontxu bateri.

Gizontxua engaiñaerreza zan, eta ontzat artu eutsan artu-emonan.

Lenengo egia, uretara sartu baiño len esateko zan. Bigarrena, ibai erdian. Eta irugarrena, urtekeran.

Azeri zarrak igon eutsan lepora, eta gizontxu jakingurea adi adi eukola, maltzurkeriz beterik esan eutsan lenengo egia au:

«Illargi zuridun gaba, eguna bai-zen argia dala esango deusk baten batek. Ez orixe. Eguna beti argiago.»

Ixilik eta pentsakor joiazan biak, eta ibai erdira eldu zireanean, bigarren egia, lengoa baiño biribillagoa:

«Iñoren ama, ona dok. Baiña... norberarena baizen ona ez».

«Asko jakik onexek», esan eban bere kolkorako gure gizontxuak.

Andiko bazterrera ia eldurik egozala, zast! salto egin eutsan lepotik motara, eta igesi joiala esan eutsan:

«Lagun, praktaxu zarrak daukozak, baiña nire lako asko beste alde-
ra pasetan badituk, aurrerantzean-be
praka zarrak eukiko dozak».

Zurtz eginda, tamalez beterik geratu zan gizontxu gizaixoa, irugarren egia garrantza entzun eutsanean. Eta luki zarra pozik eldu zan oillar otsak zirean tokira.

*
* *

Gure jolastoki eta ziñe etxeetan-be, azeri zar asko dabiz euren mal-muzkeriekin izakera makaleko gazteak engaiñetan, eta zur ibilli bear dogu, azeri orreen menpean, igarri barik, jausi ez gaitzean.

Aurraitz



Ekin....!

Mister Churchill'ek-be kurutzegramak ataraten ei ditu. Bazkalostean, puro eder bat agoan dabela, jezarten da jarleku bigun baten, artzen dau asteroko errebista, ta asten da ango kurutzegramea igarten.

Bost, amar miñutuan, arazo orretan jarduten daben bitartean, aztu egiten ditu eguneko lorrak, toton egin barik azkeneraño eltzen da, noizik bein gauza barriren bat ikasi, ta ia beti kurutzegramea oso osorik igarri dabela-ta pozezko agokada bat ke botetan dau irribarreka.

Guk-bere, orrexetarako ipinten dogu emen illeroko kurutzegramea: deskantsu pifin bat artu, atsegin apur bat euki, ta jakituria pixka bat geituteko.

Izan-bere, kurutzegramea gauza atsegingarria da, postura bat lakoxea da-ta. *Oso osorik ezetz igarri* diñosku kurutzegrameak, eta guk *baietz* erantzuten deusagu.

Danori gustetan jaku apostu egitea, danori galdu-gordean jokatutea, batez-bere arazo orretan ardurazko ezer galdu barik, beti zerbait irabazten badogu.

Asten da jokoa, egiten doguz egiñalak berbak topetan, eta betetan ditugu kuadru guztiak. Ondo ete dago egin doguna? Bai ete, ez ete? Axe bai jakingurearen kilikilia!

Ikusten dogu beingo beingoan azalpena, ta pozarren geratuten gara igarri dogunean, edo urrengoan obeto egiteko gogoaz, igarri ezean.

Bitartean, atsedean iski bat artu dogu, ta bearbada euskal berba barri bat edo bi ikasi.


ANAITASUNAREN irakurleak, atara beti kurutzegramea. Maitatu euskerea. Benetako euskaldunak izan gura badozue, egin alegiñak euskeraz irakurten eta laguneru irakurri eragiten.

Urrengo numeruan, kurutzegramea oso osorik igarri dabenen ize-nak argitaratuko doguz.

Orretarako bialdu kurutzegramak aprilleko amabosta baiño lenago, egillearen izena ta bizilekua argi argi idatzita.

Bialdu zuzenbide onexegaz: R. P. Rector, Colegio Seráfico, Forua (Vizcaya).

KURUTZEGRAMA N.º 7



Ezkerretik eskumaldera: 1. Armusua jan.—2. Palaz jokatuten daben Naparroako anaia bi. Seme-alabadun emakumea.—3. Auntzaren arra (atzekoz aurrera). Esanekoa (obediencia).—4. Dimako auzotegia. Bokal letrea.—5. Konsonante letrea. Numerua (atzekoz aurrera).—6. Bateoan ipiñi euskuen. Leku aretara.—7. Merke ez dana. Jakob patriarkearen seme bat.—8. Gauza bateri pixua arindu. Bokal letrea.

Goitik beera: 1. Bizkargi aldeko erri bat.—2. Otz ez dana (atzekoz aurrera). Agurea.—3. Kordela. Posesiboa.—4. Orri zabaldun ortuaria. Zein lekutan.—5. Konsonante letrea. Konsonante letrea.—6. Egiñiko pekatuagaitik atsekabza. Urteko sasoi beroa (atzekoz aurrera).—7. Urte gitxiko neska-mutilla. Josteko erabilten da (atzekoz aurrera).—8. Leku aretan. Bakotxari bat.